



## **TURISMOKO ZUZENDARITZA NAGUSIARI GIPUZKOA TURISMO MARKAREN TURISMO KOMUNIKAZIO- ESTRATEGIA GARATZEN LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA**

### **1. Kontratuaren xedea.**

Kontratuaren xedea Turismoko Zuzendaritza Nagusiari Gipuzkoa Turismo markaren turismo komunikazio-estrategia garatzeko laguntza tekniko ematea da.

Kontratazio honen bitartez Administrazioa bakarrik behartzen da esleipendun gertatzen den enpresaren esku uztera ondoren aipatzen diren lanak, Administrazioak berak dituen baliabideekin aurrera eramatea ezinezkoa duenean.

### **2. Zerbitzuaren edukia.**

- Publiurreportaje turistikoak antolatzea
- Familiarteko bidaiak antolatzea eta laguntzea
- Marketin-ekintzak eta komunikazio-kanpainak egitea
- Zerbitzu turistikoaren sustapena digitalizatzea
- Turismo-agenda mantentzea
- Sare sozialetarako edukiak sortzea

Enpresa esleipenduna behartuta dago kontratuaren exekuzioaren bitartean sortzen diren produktu eta material guztien kopia Administrazioari ematera, honek eskatzen duen euskarri eta formatuetan. Jasotako material guztiak zuzenean editagarriak izan behar dira, Administrazioak berak moldatu eta ekoizteko aukerarekin.

## **PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE UN SERVICIO DE ASISTENCIA TÉCNICA A LA DIRECCIÓN GENERAL DE TURISMO PARA EL DESARROLLO DE LA ESTRATEGIA DE COMUNICACIÓN TURÍSTICA DE LA MARCA GIPUZKOA TURISMO**

### **1. Objeto del contrato.**

El objeto del contrato es la asistencia técnica a la Dirección General de Turismo de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el desarrollo de la estrategia de comunicación turística de la marca Gipuzkoa Turismo.

La presente contratación no supondrá más obligación para la Administración que la de encomendar a la empresa adjudicataria la realización de los trabajos descritos, cuando resulte necesaria su realización por medios externos a la Administración.

### **2. Contenido del servicio.**

- Organización de publiurreportajes turísticos
- Organización y acompañamiento de viajes de familiarización
- Realización de acciones de marketing y campañas de comunicación
- Digitalización de la promoción de los servicios turísticos
- Mantenimiento de la agenda de turismo
- Generación de contenidos para redes social

La empresa adjudicataria vendrá obligada a entregar a la Administración copia de todos los productos y materiales que se realicen durante la ejecución del contrato, en los soportes y formatos que se señalen por la propia Administración. Todos los materiales que se presenten deberán ser directamente editables y susceptibles de adaptación y explotación por parte de la Administración.



Sektore Publikoko Kontratuén 9/2017 Legeak bere 308.1 artikuluan zehazten duenaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari laga behar zaizkio kontratu honetatik ondorioztatzen diren jabetza intelektual edo industrialeko eskubide guztiak. Hirugarrenenak diren eduki, elementu edo materialak barnean sartzen badira, esleipendunak bermatu beharko du Administrazioari lagatzen zaizkiola dagozkion eskubideen erabilera eta ustiapen baketsua.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 308.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, los derechos de propiedad intelectual y/o industrial que se puedan derivar del trabajo contratado serán cedidos a la Diputación Foral de Gipuzkoa. En caso de incluir contenidos, elementos o materiales de terceros, la empresa adjudicataria se asegurará de ceder a la Administración el uso y explotación pacífica de los mismos.

### **3. Giza baliabideak eta baliabide teknikoak**

- Proiektuaren zuzendaritza komunikazio edo marketin arloko titulazioa duen pertsona batek hartuko beharko du, eta gutxienez 10 urteko esperientzia izango duena publizitate eta/edo komunikazio arloan.
- Lanetan diharduten pertsona guztiak horiek gauzatzeko gai izango dira, enpresa esleipendunaren organizazioaren menpe egongo dira eta burutu behar dituzten zeregin guztietarako esperientzia egiaztatua izan beharko dute.
- Sortzen diren dokumentu eta ekintza guztiek elebidun planteamendua, euskaraz nahiz erdaraz, izango dute, eta baldintza horrek ezin du inolako gain-kosturik suposatu.
- Hizkuntzaren, irudien eta edukien erabilera ez sexista eta ez androzentrikoa bermatuko duten komunikazio politikak aplikatuko dira.
- Administrazioak edozein momentutan, kontratuaren aurretik nahiz exekuzioaren bitartean, ezezkoa eman diezaioke enpresak jartzen duen edozein baliabideri, ulertzen badu beharrezkoak diren baldintzak ez direla betetzen.

### **4. Lanen ikuskapena eta kontrola.**

### **3. Medios humanos y técnicos.**

- La dirección del proyecto deberá ser asumida por una persona con titulación en comunicación o marketing y con un mínimo de 10 años de experiencia en el ámbito de publicidad y/o comunicación.
- Todas las personas que intervengan en la realización de los trabajos deberán estar capacitadas para desarrollarlos, actuarán bajo la organización de la empresa adjudicataria y deberán contar con experiencia acreditada en las labores en las que vayan a participar.
- Todos los documentos y actividades se realizarán con un planteamiento bilingüe, en euskera y en castellano, sin que ello suponga un precio o cargo adicional.
- Se aplicarán políticas de comunicación que garanticen el uso no sexista y no androcéntrico del lenguaje, imágenes y contenidos.
- La Administración podrá recusar en cualquier momento, antes o durante la ejecución del contrato, a cuantos medios destinados por la empresa estime que no cumplen con los requisitos establecidos.

### **4. Inspección y control de los trabajos.**



Enpresa esleipendunak Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari lanen garapenaren inguruan dagozkion ikuskapen eta kontrol eginkizunak betetzea erraztu beharko du, jasotzen dituen oharrak eta gomendioak zorrotz betez.

Kontratuaren jarraipen egokia egiteko, enpresa esleipendunak aldizkako txostena emango du, garatutako lanak eta proiektuen aurrerapena jasoko dituen, baita egokitzat hartzen diren gomendioak ere.

Era berean eta ordainketa gehigarria jasotzeko eskubiderik gabe, kontratua behar bezala garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, lan edo informazio bileretara etortzea bezalakoak. Betekizun hau berme epea amaitu arte mantenduko da.

#### **5. Konfidentzialtasuna exekuzioan.**

Kontratu honen esparruan egindako lan guztiak konfidentzialak izango dira, eta enpresa esleipendunak ezingo ditu inola ere erabili, ez berarentzat ezta hirugarrenei kontratatutako lanei buruzko datu edo informazioa emateko, ezta Administrazioak emandako dokumentazioari buruzkoa ere.

Zentzu horretan, eta klausula administratibo partikularren agiriak nahiz izaera pertsonaleko datuen babesari lotutako araudiak aipatzen dituzten betebeharren kalterik gabe, enpresa esleipenduna behartuta egongo da bere eskura dituen baliabide guztiak erabiltzera kontratua gauzatzen den bitartean jasotzen duen informazioaren konfidentzialtasuna mantentzeko.

La empresa adjudicataria deberá facilitar el ejercicio de las funciones de inspección y control que sobre el desarrollo de los trabajos corresponden al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, dando estricto cumplimiento a las observaciones y recomendaciones que reciba.

Al objeto de un adecuado seguimiento del contrato, la empresa adjudicataria entregará un informe periódico en el que se recogerán los trabajos desarrollados y la evolución de los proyectos, así como las recomendaciones que resulten pertinentes.

Del mismo modo, deberá prestar, sin derecho a pago suplementario, los servicios que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como la asistencia a reuniones de trabajo o informativas. Esta obligación se mantendrá hasta la finalización del periodo de garantía.

#### **5. Confidencialidad en la ejecución del contrato.**

Todos los trabajos realizados en el ámbito del presente contrato tendrán carácter confidencial, no pudiendo la empresa adjudicataria utilizar para sí ni proporcionar a terceros datos o información alguna de los trabajos contratados, ni de la documentación facilitada por la Administración.

En tal sentido, sin perjuicio de las obligaciones establecidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares, así como de las demás obligaciones que pudieran derivarse de la vigente normativa de protección de datos de carácter personal, la empresa adjudicataria vendrá obligada a poner todos los medios a su alcance para preservar la confidencialidad de la información a la que tenga acceso durante la ejecución del contrato.

Donostia, 2020ko azaroaren 13a

San Sebastián, 13 de noviembre de 2020

Izptua.:/ Fdo.: Xabier Eleizegi Uranga

Turismo Plangintza eta Kudeaketa Unitateko burua

